



## EBAZPENA, IKASTETXE ETA PLANGINTZA ZUZENDARIARENA, DANTZAKO GOI-MAILAKO ARTE-IRAKASKUNTZAK EGITEKO SARBIDE-PROBETARAKO DEIA EGITEN DUENA, 2024KO PROBA ANTOLATZEKO, EGITEKO ETA EBALUATZEKO BEHARREZKO ARGIBIDEAK EMATEN DITUENA ETA 2024-2025 IKASTURTEAN IKASLEAK ONARTZEKO PROZEDURA EZARTZEN DUENA.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldatuak, 54., 55., 56. eta 57. artikuluetan xedatzen duenez, Goi-mailako Arte Irakaskuntzen Graduko titulua lortzeko irakaskuntzetara sartzeko, beharrezkoa da Batxilergoko titulua izatea, hogeita bost urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gaindituta izatea, edo goi-mailako arte-irakaskuntzen titulua, unibertsitate-titulua edo goi-mailako teknikariaren titulua izatea, bai eta sartzeko proba espezifikoak gainditzea ere. Hori jasota dago, halaber, urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretuaren 12. Artikuluan, uztailaren 26ko 628/2022 Errege Dekretuak aldatua. Errege Dekretu horren bidez, zenbait errege-dekretu aldatu ziren abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoa aplikatzeko irakaskuntza artistikoei eta kirol-irakaskuntzei, eta irakaskuntza horien antolamendu orokorraren zenbait alderdi egokitzeko.

Bestalde, lege organiko horrek 69.5 artikuluan ezartzen duenez, hemezortzi urtetik gorakoek, batxilergo-titulua dutela edo hogeita bost urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu dutela egiaztatzen ez badute ere, goi-mailako arte-irakaskuntzak egin ahalko dituzte; horretarako, proba bat gainditu beharko dute. Proba hori hezkuntza-administrazioek arautu eta antolatuko dute, eta haren bidez egiaztatuko da izangaia behar bezain heldua dela, Batxilergoko helburuei dagokienez eta dagokion ikasketak probetxuz egiteko ezagutzari, abileziei eta gaitasunei dagokienez. Izangaiek, horretaz gainera, ikasketa horietako bakoitzerako sarbide-proba espezifikoak gainditu beharko dute.

Abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldatutako, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak araututako goi-mailako arte-irakaskuntzen antolamendua ezartzen duen uztailaren 26ko 628/2022 Errege Dekretuak aldatutako urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoarekin bat etorri Dantzako goi-mailako arte-irakaskuntzen oinarritzko edukia arautzen duen maiatzaren 14ko 632/2010 Errege Dekretua argitaratu zen.

632/2010 Errege Dekretuaren 5. artikulua arabera, irakaskuntza horietan sartzeko egin beharreko sarbide-proba espezifikoaren helburua da izangaiek ikasketa horiek probetxuz egiteko dituzten heldutasuna, ezagutzak eta gaitasunak balioestea, eta hezkuntza-administrazioei eskatzen zaie proba horretarako deialdia egiteko eta proba hori antolatu, garatu eta ebaluatzeko. Horiek horrela, honako hau

### EBAZTEN DUT:

#### Lehenengoa. Xedea eta aplikazio-eremua.

Ebazpen honen xedea da 2024-2025 ikasturterako Euskal Autonomia Erkidegoan Dantzako goi-mailako irakaskuntzak egiteko sarbide-proba espezifikoaren deialdia egitea eta hura arautzea, bai eta ikasleak onartzeko irizpideak ezartzea ere.

#### Bigarrena.- Probaren helburua eta ondorioak.

- Goi-mailako irakaskuntza horietara sartzeko probaren helburua da izangaiek ikasketa horiek probetxuz egiteko behar adina heldutasun, ezagutza eta gaitasun badituzten balioestea.





2. Proba gainditzeak aukera emango du ikasketa horiek irakasten dituen estatuko edozein ikastetxetan sartzeko, betiere, ikastetxe horietan plaza libreak baldin badaude.
3. Probak dagokion ikasturterako bakarrik balio du.

### **Hirugarrena. Ikasleek proba egiteko bete beharreko baldintza.**

Ikasleek baldintza hauetakoren bat bete beharko dute Dantzako goi-mailako arte-irakaskuntzetara sartzeko proba espezifikoa egin ahal izateko:

1. Batxiler-titulua izatea.
2. Unibertsitatean sartzeko 25 urtetik gorakoentzako sarbide-proba gainditu izana.
3. Goi-mailako arte-irakaskuntzetan sartzeko ezarritako baldintza akademikoen ordezkoko heldutasun-proba edo lanbide-heziketako goi-mailako heziketa-zikloak egiteko sarbide-probaren atal komuna gainditu izana.

### **Laugarrena. 2024ko proba egiteko izen-ematea: prezio publikoak, ikastetxea eta epeak.**

1. Izena emateko epea: apirilaren 17tik maiatzaren 17ra arte, eguadiako 13:00ak arte.
2. Eskaera online egingo da.
3. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko maiatzaren 16ko Aginduak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ematen dituen hezkuntza-zerbitzuen prezio publikoak ezartzen dituen Agindua hirugarrenez aldatzekoak, xedatutakoaren arabera, deialdi honetan parte hartzen duten izangaiek 28,02 € ordaindu behar dituzte sarbide-probaren prezio publiko gisa.
4. Dantzako irakaskuntzak egin nahi dituzten ikasle guztiek online bete beharko dute izena emateko eskabidea.
5. Maiatzaren 27an "Dantzerti" Arte Dramatiko eta Dantza Goi Eskolaren webgunean argitaratuko da proba egiteko izena emandako pertsona onartuen zerrenda, eta, hala badagokio, baztertuen zerrenda ere bai, baztertuta geratzeko arrazoiak adierazita. Akatsak zuzentzeko epea argitaratze-egunetik maiatzaren 31ra arte (egun hori barne) egongo da irekita. Behin betiko zerrenda ekainaren 3an argitaratuko da.

### **Bosgarrena. Sarbide-probaren egitura.**

Dantzako goi-mailako arte-irakaskuntzetako Koreografia eta Interpretazioa espezialitatea egiteko sarbide-proba espezifikoa bi zati izango ditu:

#### **1. zatia**

Proba dantzari buruzko testu baten iruzkina izango da, gogoetarako galdera batzuetan oinarrituta. Horretarako, Dantzertiren webgunean ([www.dantzerti.eus](http://www.dantzerti.eus)), hiru testu argitaratuko dira aldeztu aurretik, eta testu bakoitzak lotura bat izango du erlazionatutako bideo batera. Izangaiek 3 testuak aztertu eta testu bat aukeratu beharko du, sakon prestatzeko. Bibliografia erreferentzial orokor bat ere emango da webgunean.

Heldutasuna eta ezagutzak baloratuko dira, kontzeptuen ulermenaren, hizkuntzaren erabilieraren, erlazionatzeko eta sintetizatze gaitasunaren, erantzunen egokitasunaren eta egindako analisi kritikoaren bidez.

Ariketa honek 60 minutu iraungo du gehienez.



Izangaiek euskaraz edo gaztelaniaz egin ahal izango dute proba idatzia, eskabidean aukeratutako aukeraren arabera.

## **2. zatia**

Praktikoa izango da, espezialitatearekin lotuta egongo da eta epaimahaiari aukera emango dio izangaien ezagutza orokorrak, teknikoak, artistikoak nahiz interpretaziokoak, eta sorkuntzakoak neurtzeko. Hiru ariketek osatuko dute (A, B eta C).

Ariketak balioesteko irizpideak "Dantzertiko" webgunean egongo dira.

### **A ariketa**

Dantzako irakaskuntza profesionaletako azken ikasturteko bi eskola praktiko egitea, teknika-musika- eta adierazpen-gaitasunaren parametroak behatzeko, bai eta izangaiek duen ahalmen fisikoa eta kognitiboa ere.

Izangaiek epaimahaiak izendatutako aditu batzuek emandako Dantza Klasikoko eskola bat eta Dantza Garaikideko beste bat jasoko dituzte.

Eskola bakoitzak 75 minutu iraungo du gehienez.

### **B ariketa**

Bakartsaio bat egitea. Izangaiek errepertorioaren bariazio bat edo sorkuntza bat interpretatzeko aukera izango du. Ariketa horren helburua izangaien interpretatzeko gaitasuna balioestea da. Ariketa horrek hiru minutu iraungo du gehienez.

### **C ariketa**

C ariketak bi zati izango ditu:

- C1. Inprobisazio-saioa.

Inprobisazioko talde-saio bat egingo da.

- C2. Sorkuntza.

Sormenezko banakako ariketa bat egitea. Epaimahaiak gai edo jarraibide bat proposatuko du sorkuntza baterako abiapuntu gisa. Izangaiek 30 minutu izango dituzte gehienez, 3 minutuko proposamen eszeniko bat prestatzeko. Proposamen hori banaka aurkeztuko dute prestaketa-denbora amaitzean.

Banakako ariketa aurkeztu ondoren, epaimahaiak egokitzat jotzen dituen nahi beste galdera egin ahal izango dizkio izangai bakoitzari.

I. eranskinean ageri da probaren egitura eta zati bakoitzari dagokion puntu kopurua.

### **Seigarrena. Sarbide-probaren kalifikazioa**

1. Sarbide-proba espezifikoa gainditzeko, ezinbestekoa da bi zatiak gainditzea. Lehenengo zatian 10 puntu edo gehiago eta bigarrenean 40 edo gehiago lortu dituzten izangaien behin betiko puntuazioa baino ez da jasoko.
2. Amaierako kalifikazioa zenbakitan adieraziko da, eta, horretarako, batetik ehunera bitarteko eskala erabiliko da, dezimal batekin. Dezimal hori gertueneko hamarrenera biribilduko da eta distantzia berean badago, handienera.
3. Abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak aldaturiko, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 54.2 artikuluan ezarritakoaren arabera,



dantzako titulu profesionala izatea kontuan hartuko da probaren azken kalifikazioa jartzeko. Kalifikazio hori, titulu profesionala aurkezten dutenentzat, honako adierazpen honen arabera lortutakoa izango da: proba espezifikoak, % 80 + titulu profesionalaren batez besteko nota, % 20.

### **Zazpigarrena. Sarbide-proba espezifikoako epaimahaia**

1. Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzako arduradunak izendatuko du epaimahaia, eta, gutxienez, epaimahaiburuak eta hiru epaimahaikidek osatuko dute.
2. Epaimahaiak egoki deritzen aholkularien laguntza eskatu ahal izango du.
3. Honako hauek dira epaimahaiaren egitekoak:
  - a) Euskal Autonomia Erkidego osorako bakarrak izango diren probak prestatzeko eta egiteko prozesua antolatzea.
  - b) Ebaluazio-saioak antolatzea eta aktak egitea.
  - c) Aurkezten diren erreklamazioak ebaztea.
  - d) Sarbide-probak behar bezala egiten direla eta indarrean dagoen araudia betetzen dela zaintzea.

### **Zortzigarrena. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak.**

1. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek denbora eta bitarteko materialak egokitzeko eska dezakete, gainerako ikasleen aukera berak izateko.
2. Pertsona horiek hezkuntza-premia bereziak dituztela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute.

### **Bederatzigarrena. Proba egitea.**

1. Dantzako goi-mailako arte-irakaskuntzak egiteko sarbide-proba espezifikoak ekainaren 10tik 14ra bitartean egingo dira. Data zehatzak, gutxienez, proba-egunak baino hamar egun lehenago jakinaraziko dira "Dantzerti" Arte Dramatiko eta Dantzako Goi Eskolaren webgunean.  
Probak "Dantzerti" Arte Dramatiko eta Dantza Goi Eskolan egingo dira.
2. Epaimahaiak horrela erabakiko balu, jarraibide gehigarrien bidez, aurreko puntuei buruzko argibide gehiago eman ahal izango ditu "Dantzerti" Arte Dramatiko eta Dantza Goi Eskolaren iragarki-taulan edo webgunean.
3. Izangaiek NAN, AIZ edo nortasuna egiaztatzen duen beste agiri ofizial bat aurkeztu beharko dute probak egin ahal izateko. Horrez gain, beraiek eraman beharko dituzte probako ariketak egiteko beharrezkoak diren tresnak.

### **Hamargarrena. Probaren emaitzen argitalpena eta erreklamazioak.**

1. Behin-behineko kalifikazioak "Dantzerti" Arte Dramatiko eta Dantza Goi Eskolaren webgunean argitaratuko dira, proba egin eta bi egun balioduneko epean.
2. Behin-behineko emaitzak argitaratu eta bi egun balioduneko epean egin dezake ikasleak proban ateratako kalifikazioaren erreklamazioa egin ahalko du. Erreklamazioa epaimahaiburuari egin beharko dio, eta behin betiko kalifikazioak onartzearekin batera ebatziko da.
3. Behin betiko kalifikazioak behin-behineko kalifikazioak argitaratu eta gehienez ere astebetera argitaratuko dira.



4. Behin betiko kalifikazioaren kontra, gorako errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio ikastetxe eta Plangintzako Zuzendaritzako arduradunari, kalifikazioa argitaratu eta hilabeteko epean.

#### **Hamaikagarrena. Probaren ziurtagiria.**

Proba gainditu duen ikasleak ziurtagiri bat eskatu ahal izango du proba egin duen ikastetxean. Ez zaie ziurtagiririk emango proba guztiz gainditu ez duten izangaiei, ez ziurtagiri partzialik, ez eta ariketen kalifikazio-ziurtagiririk ere.

#### **Hamabigarrena. Dokumentazioa gordetzea.**

Probak egitean sortutako dokumentazioa ikastetxean gordeko da, probak amaitu eta hiru hilabeteko epean.

#### **Hamahirugarrena. Probak egitean sortutako dokumentazioa ikastetxean gordeko da, probak amaitu eta hiru hilabeteko epean.**

1. 2024-2025 deialdian, eta martxoaren 15eko 303/2010 Errege Dekretuaren 26. artikuluan ezarritako ratioen arabera, administrazio akademikoak sarbide-probetarako deialdia egiten du Koreografia eta Interpretazioa espezialitateko 25 plaza betetzeko.
2. Ikasleak onartzeko, ezinbestekoa da ikasleak sarbide-proba espezifikoa gainditu izana.
3. Proban lortutako noten arabera esleituko dira plazak, beheranzko hurrenkeran.
4. Berdinketa gertatuz gero, lehentasuna izango du sarbide-probako bigarren zatian nota handiena lortzen duen izangaia. Hala eta guztiz ere berdinketak bere horretan jarraitzen badu, lehentasuna izango du sarbide-proba egiteko egiaztatutako baldintza akademikoan kalifikaziorik onena egiaztatzen duenak, honako lehentasun-hurrenkera honen arabera: Batxilergoko batez besteko nota, hogeita bost urtetik gorakoentzako sarbide-probako kalifikazioa eta hemezortzi urtetik gorakoentzako heldutasun-probako kalifikazioa. Horiek horrela, "Gai" kalifikazioa bostaren parekoa izango da zenbakizko notetan.
5. Matrikulatzeko epea amaitzean plaza libreak geratuz gero, ikastetxe horretan probak gainditu dituzten eskatzaileek izango dute lehentasuna plaza lortzeko, eta plaza horiek proba espezifikoan lortutako ordenaren arabera esleituko dira.
6. Amaitzeko, plaza libreak geratuz gero, beste ikastetxe batean espezialitate bererako sarbide-proba espezifikoa gainditu duten beste eskatzaile batzuei esleitu ahalko zaizkie.
7. Goi-mailako eta errendimendu handiko kirolariei buruzko uztailaren 13ko 971/2007 Errege Dekretuaren 9.4 artikuluan ezarritakoa betetze aldera, plaza huts berrien % 3 erreserbatuko zaie goi-mailako edo errendimendu handiko kirolariak direla egiaztatzen duten kirolariei, betiere, dagozkien baldintza akademikoak betetzen badituzte eta sarbide-proba espezifikoa gainditzen badute. Plaza-erreserba hori ikastetxe bakoitzak eskaintzen dituen plaza berrien guztizkoaren arabera kalkulatu da.
8. Ezin izango da plazarik esleitu eskatzaileek sarbide-proba gainditu duten espezialitatea ez den batean..
9. Matrikula, "Dantzerti" Arte Dramatiko eta Dantza Goi Eskolan egingo da uztailaren 1etik 12ra.



Eugenio Jiménez Ibáñez  
IKASTETXE ETA PLANGINTZA ZUZENDARIA



## I. ERANSKINA

## PROBAREN EGITURA

	ARIKETA	OHARRAK	ARIKETA EGITEKO DENBORA	ARIKETAREN BALIOA	
<b>1. ZATIA</b>	Epaimahaiak proposatutako testu bati buruzko iruzkina egitea.		60 minutu	<b>20 puntu</b>	
<b>2. ZATIA</b>	<b>A ARIKETA</b>				
	<b>A1</b>	Ikasketa profesionaletako 6. mailako Dantza Klasikoko eskola-saioa.	Epaimahaiak izendatutako aditu batek zuzenduta	75 minutu gehienez	<b>20 puntu</b>
	<b>A2</b>	Ikasketa profesionaletako 6. mailako Dantza Garaikideko eskola-saioa.		75 minutu gehienez	<b>20 puntu</b>
	<b>B ARIKETA</b>				
	<b>B1</b>	Bakartsaio bat egitea	Izangaiak aukeratukotakoa	3 minutu gehienez	<b>15 puntu</b>
	<b>C ARIKETA</b>				
	<b>C1</b>	Inprobisazio-saioa	Epaimahaiak izendatutako aditu batek zuzenduta	30 minutu gehienez	<b>15 puntu</b>
<b>C2</b>	Sorkuntza	Epaimahaiak proposatutako gaian edo ereduan oinarrituta	3 minutu gehienez (30 minutu prestatzeko)	<b>10 puntu</b>	

**OHAR GARRANTZITSUA**

Proba espezifikoa gainditzen dutenen puntu kopuruari, hala badagokio, 6.3 puntuko merezimenduak gehituko zaizkio.